

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2905

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 10ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerentzako 2014. urtean emandako laguntzen berri ematen duena.

2014ko martxoaren 18an argitaratu zen EHAA 2014ko martxoaren 7ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerak 2014. urtean garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzen duena.

2014ko martxoaren 7ko Aginduaren 13.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onuradun gertatzen direnei egingo direnei banakako jakinarazpena egitea eragotzi gabe.

Horiek horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko martxoaren 7ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 10a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2014ko ekainaren 30a, astelehena

ERANSKINA

Antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala lortzera zuzendutako ikastaroak antolatzen dituzten egitarauentzako diru-laguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Asociación Taller Artes Escenicas TAE	TAE de Donostia	14.500
Arlauskas Pinedo, Alguis	Anima eskola	4.000
Porpol, S. Coop.	TAE de Vitoria-Gasteiz	25.000
Pedagogía del Arte, S. L. L.	Artebi	3.000
Utopian Getxoko Antzerki Eskola	Getxoko Antzerki Eskola	22.500
Asociación Teatrako Teatro de Barakaldo	BAI, Bizkaiko Antzerki Ikastegia	14.000

Antzerkiko profesionalen prestakuntzarekin lotutako arlo zehatzetako prestakuntza jarduerentzako diru-laguntza eman zaien zerrenda

Eskatzailea	Diru-laguntza jasoko duen ekintza	Diru-laguntza
Unima Euskal Herria	Teatro de Marionetas	4.000
Asoc. Profes. de Técnicos de las Artes Escénicas	13 cursos técnicos	1.000